

472.
2026ko apirila

Irunero

Café Mokka

JABIER MUGURUZA
Barruon Sariabiziaren Irakaslea



ALBERDANIA

Café Mokka:

Jabier Muguruzaren
estreinako nobela
hurbila

Caser Residencial Gipuzkoa

Behar duzun
tokian eta unean zaintzen zaitugu

Zaintzaren kontzeptu berri bat, egoitzaik harago doana.

caser
residencial

Caser Residencial
Gipuzkoa

Etxean bezala, inon ez



aurkibidea

- Bertatik Bertara** - 24. Korrika **4**
- Kalean Bai** - Lagun Artean Elkartea **6**
- Oiassotik Irunera** - Moda baino askoz gehiago **7**
- M8ko mobilizazioa **8**
- Ekintzaileak** - Holy Burger **10**
- Behobia futbol klubaren 50. urteurrena **12**
- Jabier Muguruza **14**
- Alberdania argitaletxea **18**
- Bertso jarriak** **23**
- Denbora pasak** **23**
- Kirola** - Jon Morillo **24**
- Kirola** - Alba Rodríguez **26**
- Beti Gazte** - Makasi Travel **28**
- iGazte** **30**
- Kultura** **31**



BERTATIK BERTARA: 24. KORRIKA 4



EKINTZAILEAK: HOLY BURGER 26

irunero

Erredakzioa:
Ainara Berges
erredakzioa@irunero.eus

Administrazioa:
Joseba Arozena

Zuzenketa:
Aitor Lete

Publizitatea:
Amaia Terrazas
Ion Otxoa
Joseba Arozena
(jarozena@irunero.eus)

Diseinua eraberritzea eta maketazioa:
Maialen Sayans

Inprenta:
Antza

Argitaratzailea:
837 comunicación y publicidad S.L.
www.837comunicacion.com

ISSN: 1134-0606

Lege gordailua: SS-230-94

Tel: 943042052

Webgunea: irunero.eus

Erakunde honek Irurero diruz laguntzen du:



Hezkuntza, Hizkuntza Politika eta Kultura Sailak (Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak) diruz lagundua:



Erakunde honek Irurero diruz laguntzen du:



BEGI-BISTAN



887 BOE

San Migel-Anaka eremua eraldatuko duten obrak hasi dira, bi auzoak lotu eta hiriko etxebizitza babestuen eskaintza handiena lortzeko.

Hiriaren mendebaldeko eremu horretan 887 BOE eraikitzea aurreikusten da.



500 PARTE-HARTZAILE

Krea Bidasoak 500 pertsona baino gehiago bildu ditu Ficoban, enpresa berrikuntzaren erreferente gisa.

Aurten, arreta berezia jarri zaie energia aurrezteari eta Adimen Artifizialari (AA), enpresa lehiakortasunerako funtsezko tresna gisa.



110 MINTZALAGUN

Mintzapraktika egitasmoari bultzada berri bat eman ostean, 110 lagunetik gora dira gaur egun Irunen euskaraz aritzeko prest daudenak, aurreko edizioan baino ia 90 gehiago.

Talde berriak sortzeko bidelagun gehiago izatea ezinbestekoa da, hau da, euskaraz aritu nahi duten herritarrei laguntzeko prest dauden euskaltzaleak.



1.800 ESKU-HARTZE

Urtean zehar hiriko 1.800 zuhaitzetan esku hartzea aurreikusten du Irungo Udalak.

Irunek 15.000 zuhaitz inguru ditu guztira, eta horietatik gehiengoak platanondoak dira, zuhaitz guztien % 11 baitira.



7.200 M²

Oinaurreko Anbulatorioaren lurtzia, 7.200 m², lagatzeko eskaera ofiziala erregistratu du Jaurlaritzak Irungo Udalean.

Inbertsioa 11,2 milioi eurokoa izango da eta aurreikuspenen arabera, obrak 2027aren amaieran hasiko dira eta bi urteko egikaritze epea izango dute.



36 SEGURTASUN KAMERA

Irunek segurtasuna indartuko du 2026an bidezaintzako 36 kamera berriekin.

2026an zehar jartzen joango dira eta, behin prozesua amaituta, Irunek 226 kamera izango ditu hiri osoan zehar banatuta.



SALMENTA-ALOKAIRUAK - PROMOZIO BERRIAK - AHOLKULARITZA

Beraketa kalea, 17 | (+34) 943 64 64 12 | info@inmobiliariaolaizola.com
20302, Irun | www.inmobiliariaolaizola.com





BERTATIK BERTARA

24. KORRIKA IRUNDIK IGARO DA 'EUSKARA GARA' ALDARRIAREKIN

Irunek eskuz esku eta bihotzez bihotz eraman du 24. Korrika. "Euskara gara" lelopean, Atharratzen abiatutako euskararen arnasa Gurutze auzoan jaso eta Gaintzurizketako gainean utzi du Irunek, Lezorako bidea hartu aurretik. Bi gauetan hiria ilunpean zeharkatu arren, irundarren konpromisoak argitu ditu kaleak, gauaren erdian euskararen aldeko oihua ozendu baita. Are gehiago, lekukoa iritsi baino lehenago ere, hiria jada hasia zen euskara ospatuz bazterrak astintzen.

Lekukoa Atharratzetik irten baino lehen, martxoaren 21ean, Korrika Egunak girotu zituen gure bazterrak. AEKren gidaritzapean, auzo-elkarteak izan dira arrakastaren motor eta eragile; aurten, Korrika ez da erdigunean soilik geratu, hiriko auzoen zainetatik igaro baita, euskaltzalasuna txoko guztietara zabalduz.

Martxoaren 24ko egunsentian, goizeko 3:45ean, Korrikak bere lehen urratsak egin zituen Irunen. Gurutzetik sartu eta Landetxa, Oinaurre, Larreaundi, Alde Zaharra, Arbes eta Palmera Monterotik igaro ostean, Behobiako bidea hartu zuen, Bidasoa ibaiaren urak dakarren noranzkoaren kontrako bidea eginez, euskararen jaria etenik gabe Beratarren eskuetan uzteko.

Hurrengo egunean, 24. ordu eskas igaro zirenean, martxoaren 25ean, Hendaia-koen eskutik jaso zuten irundarrek lekukoa Santiago zubian, mugak zubiak direla frogatuz. Iparralde hiribidetik gora, Colón pasealekua eta San Miguel zeharkatu ostean, Hondarribiaren eskuetan geratu zen mezua. Azkenik, Letxunborrotik igarota, Korrikak Irungo azken kilometroak egin zituen Gaintzurizketaraino igota, euskararen lekukoa lezotarren eskuetan utziz, lekukoak bere bide nekazinean jarrai zezan, Bilboko noranzkoan.

Haur eta gazteak: etorkizuneko haziak

Korrikak irundarrak ohetik aterarazi bazituen ere, egunez ere ez zuen etenik izan euskararen jaiak. Gazteenak izan ziren protagonismoa hartu zutenak, etorkizuneko belaunaldiak euskararen motor berria direla erakusteko. Martxoaren 24an, Korrika Gazteak kolorez jantzi zituen kaleak, eta martxoaren 25ean, berriz, Korrika Txikiak lekukoa hartu eta eskuz esku eraman zuen, erakutsiz euskara ez dela soilik hitz bat, beraiek ere, txikiak, euskara direla.



LAGUN ARTEAN: IRUNGO BIHOTZEAN 40 URTEKO HISTORIA BERRITZEN

Irun hiriko Junkal kalean, 18. zenbakian, badago leku bat askorentzat oharkabean igarotzen dena, baina barnean lau hamarkadako bizipenak gordetzen dituena. Lagun Artean elkartea ez da soilik bazkide talde baten topalekua; Irungo trantsizio sozialaren eta belaunaldi arteko erreleboaren lekuko bizia da. Gaur egun, 30 bazkiderekin, elkarte garai berrietara egokitzeko erronkan murgilduta dago, bere nortasun hurbil eta familiarra galdu gabe eta hiriaren euskararen sustapenerako Kalean Bai programako kide delarik.

Elkartearen sorrera 1982. urtean kokatzen da. Orduko gazte belaunaldi batek elkartzeko espazio baten beharra ikusi eta Junkal elizaren ondoko lokal bat hautatu zuen. Leku hark istorio berezia zuen, lehenago parrokiako medikuaren dispensarioa izan baitzen. Urtebete baino gehiagoz auzolanean eta obretan aritu ondoren, 1984ko abenduan inauguratu zuten ofizialki. Iñaki Goikoetxea egungo bazkideak gogorarazi digun bezala, hasierako 21 bazkide haiek elkarteari izena ematen dion “lagun arteko” giro hori sortu zuten. Lau hamarkada geroago, historia errepikatzen ari da: sortzaileen seme-alabek hartu dute lekukoa, elkarteari bizitasun berria emateko asmoz.

Garai berrietara egokituz

Urte askotan zehar, Lagun Artean elkarte ezaguna izan da Irungo Jaietan antolatzen zuen margo eta pintura lehiaketagatik. Junkal elizaren inguruan egiten den ekimen

honek 30 urteko ibilbidea izan du elkartearen ardurapean, pandemiak eta finantziario arazoek etenaldia eragin zuten arte. Gaur egun, Udalak kudeatzen duen arren, elkartearen asmoa da etorkizunean berriro indarrak batzea antolakuntzan laguntzeko.

Hala ere, begirada ez dago soilik iraganean. Belaunaldi berria sartzearekin batera, elkarte teknologia berrietara moldatu da: wifia instalatu dute, telebistan futbola ikusteko aukera dago eta ordaintetarako transferentzia bidez egin daitezke. Horrekin batera, Instagram kontua sortu dute elkarte hirira zabaltzeko eta bazkide berriak erakartzeko.

Elkarteen atmosfera asko aldatu da azken urteotan. Lehen, gizonezkoen koadrilak sukaldatzeko eta tragoxka batzuk hartzeko elkartzen ziren gehienbat. Gaur egun, gazteagoek elkarte kontsumitu arren, sarritan kanpoko janari prestatua elkartzeko joera dute. Aldaketa horiei erantzuteko, elkarteak erraztasunak eman dizkie 18 urtetik gorako bazkideen seme-alabei ere, espazioaz gozatzeko aukera eman. “Uste dut elkarte guztiek erronka berdina dugula, are gehiago txikiak garenok: belaunaldi berriak jaso eta jende berriari harrera egitea”, azaldu du Goikoetxea. Horregatik, elkarte ezagutu nahi duen edonorentzat ateak zabalik dituztela azpimarratu du.

Elkartearen arima

Kalean Bai programako kide gisa, elkarteak konpromiso irmoa du euskararekin. Bazkide guztiek hizkuntzarekin harreman estua ez duten arren, barne zein kanpo komunikazioan bi hizkuntzak erabiltzeko ahalegina egiten dute. Goikoetxearen hitzetan, elkarte “jende euskaldunarekin harremantzeko gune bat” ere bada, askotan aurreiritziak apurtu eta euskaraz aritzeko espazioak sortzen baitira.

Elkarte handien masifikazioaren aurrean, Lagun Artean elkarteak hurbiltasuna eskaintzen du. “Gurea elkarte txikia izateak zerbait berezia ematen dio; etortzen zarenean giro lasaia eta familiarra topatzen duzu”, gehitu du. Izena bera ere hortik dator, lagun koadrila batek sortutako proiektu bat delako.

Etorkizunera begira, helburu nagusia egoera apur bat egonkortzea eta elkartera batu den belaunaldi berriaren artean lanak banatzea da. Antolakuntza berria finkatu ondoren, elkarte berriro “kanpora begira” jarri nahi dute, lehen bezala jarduera kulturalak antolatzen jarraitzeko. Junkal kaleko altxor txiki honek bizirik eta aktibo jarraitu nahi du Irungo bihotzean.



OIASSON, MODA BAINO ASKOZ GEHIAGO

Gaur egun bezala, erromatar munduan ere sukaldeak eta sukaldaritzak garrantzi handia zuten. Oiasson agertu diren aztarnak kontuan hartuta, hemen ere jarduera horrek pisu handia izango zuen. Inguru honetan egindako indusketetan aurkitutako ontziak, platerak, edalontziak eta sukaldeko beste tresna asko zeramikaz eginak dira. Oinarrizko ontzi horiek sukaldatzeko eta jakiak garraiatzeko erabiltzen ziren, eta litekeena da Oiasson bertan edo inguruan halako piezak ekoizten zituzten tailerrak egotea. Nolanahi ere, tokiko zeramika horrek eguneroko beharrei erantzuten zien: erabilgarria zen, baina ez bereziki dotorea.

Hala ere, Erromatar Inperioak sukaldaritzarekin eta mahaiko kulturarekin lotura zuzena zuen joera bat zabaldu zuen: terra sigillata izeneko zeramika fina. Gure inguruan 1960ko hamarkadan Duralex platerak modan jarri ziren bezala, terra sigillata ezinbesteko bihurtu zen erromatar etxe aberatsetan. Kolore gorrixka distiratsua zuen, gainazal leun eta ia beiraztatua, eta askotan molde bidez egindako apaingarriak izaten zituen: animalien, landareen, dantzan ari diren pertsonen edo irudi geometrikoen erliebeak.

Gure inguruan Bidasoa portzelanen lantegietan egindako plateren sinadura oso estimatua zen bezalaxe, erromatar garaiko ontzi askok fabrikatzailearen zigilua ere eramaten zuten, artisau horien lana oso estimatua baitzen. Horri esker, Oiasson aurkitutako piezek erakusten dute hiriaren garapena bereziki I. eta II. mendeetan gertatu zela.

Hasieran, Oiassora iristen zen terra sigillata gehiena Garona ibaiaren ingurutik, Frantziako hegoaldeetik, Montans ingurutik, zetorren. Baina K.o. 70. urtetik aurrera, Errioxako Tritium Magallum herriko —gaur egun Trizio izenarekin ezagutzen den herriko— tailerrek ospe handia lortu zuten. Oiasson aurkitutako ontzi mota horretako gehienak handik ekarriak dira. Inguru horretan buztin egokia zegoen, eta kokapen estrategikoari esker —Mediterraneorearen eta iparraldearen gurutzagunean— ekoizpen eta banaketa sare zabal bat garatu zen.

Gainera, I. mendean municipium romanorum izendatu zuten, pribilegio horrek jarduera ekonomikoa bultzatu zuen, eta tailer ugari sortu ziren. Ezagunak dira, besteak beste, Valerius Paternus, Sempronius, Lapillus edo Maternus Blandus artisauak. “EX OF VAL PAT” zigiluak, adibidez, “Valerius Paternusen lantegian egin” zela adierazten zuen. Tailer horiek egindako piezak ez ziren tokian bertan bakarrik erabiltzen: Portugalen, Mauritanian, Britanien, Germanian eta Asian ere aurkitu izan dira.

Testuinguru horretan, Oiassoko portuak garrantzi estrategikoa zuen: metalak, arraina, kontserbak eta bestelako produktuak esportatzeaz gain, litekeena da terra sigillata ere handik banatzea.

Irudika dezagun Oiassoko garai hartan biziko bagina eta lagun bat bazkaltzera gonbidatuko bagenu. Otorduari garrantzi handia emango genioke: arraina bere garum saltsarekin, eta

bestelako jaki goxoak prestatuko genituzke. Baina, ziurrenik, kezka nagusia ez litzateke soilik zer jan, baizik eta nola eta zertan zerbitzatu. Zorionez, terra sigillata zeramikazko plater ikusgarriak edukiko genituzke. Garai hartako etxeetako hormak ia apaingarririk gabe egon arren, mahai gaineko ontzi gorri distiratsuek dotorezia handia emango zioten etxeari. Eta edalontziek ere bazuten bere garrantzia: Nafarroako Erriberan egindako “horma fineko” edalontziak ezinbestekoak ziren erromatar kutsua erakutsi nahi zuen etxe batean.

Bi mila urte igaro dira ordutik, baina gaur egun ere halako zeramikaz apaindutako mahai baten aurrean eseriko bagina, ontzien edertasunak liluratuko gintuzke. Seguruena, jakiak nola prestatzen zituzten edo zer ardo zerbitzatuko liguketen baino gehiago. Pentsa daiteke Oiassoko familia askok plater gorrixka distiratsua horietan jaten zutela, Mediterraneoko beste hiri askotan bezala.

Terra sigillata ez da zeramika mota eder eta zaindu bat bakarrik: arkeologiarentzat informazio-iturri baliotsua ere bada. Merkataritza sareak ekonomia eta eguneroko bizimodua ulertzeko aukera ematen du. Ontzi horiek erromatar eguneroko bizitzaren isla dira: mahaiko ohiturak, janaria zerbitzatzeko moduak eta etxe barruko kultura materiala ezagutzeko giltza.

Bitxia da, hala ere, terra sigillata-ren modak bi mende eta baita gehiago ere iraun izana; gaur egungo Duralexak, berriz, ez zuen bi hamarkada ere bete modaren gailurrean. Zein azkar aldatzen diren ohiturak! Eta a zer abidan goazen...



BOZGORAILU MOREAK AHOTSA ALTXATU ZUEN MARTXOAREN 8AN, EMAKUMEAREN EGUNA ZELA ETA



ZURE OSASUNA, GURE LEHENTASUNA

FISIOTERAPIA - ERREADAPTAZIOA - NUTRIZIOA - PSIKOLOGIA

Hondarribia kalea, 34W | (+34) 623 00 73 21 | info@aurreraklinika.com | www.aurreraklinika.com



LORTU TARIFARIK ONENA TELEFONIA MUGIKORREAN, FINKOAN, INTERNETEN ETA TELEBISTAN

Puiana kalea 30 behea | 652 11 85 97 / 843 63 08 80 | all4movil@all4movil.com | www.all4movil.com



EKINTZAILEAK

HOLY BURGER SUKALDE EZKUTUA IZATETIK EUSKADIKO HANBURGESA ONENA IZATERA PASA DA

Xabi Caverok eta Luis Vianak amets txiki gisa hasi zutena, gaur egun Euskadiko hanburgesarik onena bihurtu da. Espainiako Hanburgesa Txapelketan seigarren postua lortuta, Irungo Holy Burgerrek erakutsi du “egile sukaldaritzza” eta lana uztartzea dela arrakastaren gakoa. Gazte hauen ibilbidea pasioaren, lanaren eta apustu ausarten kronika da.

Holy Burger hanburgeseategiak mugarri bat ezarri berri du: estatuko txapelketan Espainiako seigarren postua eskuratu du, eta Euskadiko hanburgesarik onenaren titulua ekarri du etxera. Luis Vianak gogoratzen duen bezala, Holy proiektuaren hasiera xumea izan zen. “Dena sukalde ezkutu batean hasi zen”, azaldu du Luisek. Xabi eta Luis sukaldaritzza eskolan ezagutu ziren, eta han sortutako adiskidetasuna izan zen proiektuaren hazia. Irunen zegoen koktel taberna bateko sukalde kudeatzeko aukera sortu zitzaizkion, Xabik Luisi deitu zion: “Lehenagotik oso ondo moldatzen ginen, lagun handiak ginen, eta nirekin harremanetan jarri zen proiektua bion artean egiteko”.

Hasiera batean, asmoa oso bestelakoa zen. “Egia esan, gure ideia inoiz ez zen izan lokal bat, taberna bat edo jatetxe bat izatea. Guk take away edo eramateko zerbitzura dedikatu nahi genuen soilik”, aitortu du Luisek. Hala ere, patuak beste bide bat markatu zien. Lokala utzi behar izateak alternatiba bat bilatzera behartu zituen, eta horrek bultzatu zituen gaur egun Santiago kalean duten lokala hartzera. Beharretik bertutera pasatu ziren, eta hiriari proposamen gastronomiko berri bat eskaintzeko apustua egin zuten.

Gaur egun hanburgesen mundua oso moda azkarrean dagoen arren, Holyk bere nortasun propioa aurkitu du. Xabik eta Luisek argi dute zer den bereizten dituen: lana eta prestakuntza. Biak ala biak sukaldaritzza ikasitakoak dira, eta hori plater bakoitzean antzematen da. “Leku askotan marketina edo irudia oso ona da, baina gu sukaldean zentratu gara. Gure sukalde egile sukaldaritzza pixka bat ‘erotua’ eta ‘ganberroa’ da, baina hanburgesa formatura eramanda”, dio Luisek.

Txapelketarako sortutako hanburgesak, izenetik bertatik, asmo deklarazio bat darama: “Holy Shit”. Izena ez zen marketin estrategia hotz baten ondorioa izan, erreakzio natural bat baizik. “Probatu genuenean, horixe izan zen gure erreakzioa”, gogoratu dute parrez. Ez zuten lehendik bazeukaten zerbaitekin joan nahi; txapelketarako zerbait eskusiboa sortu nahi zuten. “Proba eta errore asko egin genituen, saiakera eta hanka-sartze ugari, konforme geunden bat atera zitzaigun arte. Maila onean

“Guk beti amestu dugu gauza berriak egitea, eta bultzada honek ametsak errazten dizkizu”

Xabi Caverok, Holy Burger

zegoela iruditu zitzaigun eta harekin joan ginen”. Hala ere, segurtasun hori ez dator harrotasunetik, lanetik baizik. “Guk beti jakin izan dugu zer egiten dugun eta ondo egiten

dugula. Kontua da gero jendearengana iristea eta probatzera honaino erakartzea, baina gure lanean oso seguru egon gara beti”, azaldu du Luis Vianak.

Espainiako Txapelketa

Espainiako Hanburgesa Txapelketan parte hartzeko erabakia jakin-minak bultzatuta hartu zuten. Otsailean zehar, bezeroek eta txapelketako ikusgarritasunak emandako botoek Espainiako 15 onenen artean kokatu zituzten. Xabik gogoratzen du prozesua oso naturala izan zela: “Guk ez genuen ezer berezirik egin. Lanean jarraitu genuen, hanburgesa berria kartan genuela. Egia da jendeak esaten zuela txapelketan geundela ikusi zuela eta probatu nahi zuela”.

Madrilgo finalerako sailkapena ezusteko galanta izan zen. “Martxoaren 3an, etxean nengoela, txapelketatik deitu zidaten zorientzeko. Ez nuen sinesten. Lehenengo gauza Luisi deitzea izan zen eta Madrilera joateko mailetak prestatzen hastea”, dio Xabik. Luisek ere gogoan du une horren xarma: “Hori izan zen politena: erotu gabe lanean jarraitu genuen, eta bat-batean, deia. Lan onaren ordaina izan da, ez zerbaiten bila itsu-itsu joan garelako beste guztiaz ahaztuta”.



↑ Argazkiaren iturria: VI Espainiako Hanburgesa txapelketa

Madrilgo esperientzia ahaztezina izan zen. Xabik eta Luisek ez zuten emaitza zehatzik buruan, baina aitortza lortzeak ilusio handia egin zien. “Gure lurra hemen dagoela esatea, Euskadi, eta gu hemen gaudela aldarrikatzea... horrek egiten zigun ilusiorik handiena. Euskadiko onenak garela esan dute, hemengo beste hanburgeseategiak ere ikusgarriak diren arren. Gu oso harro gaude lortutakoaz”, dio Luisek emozioz. Xabik ere bide beretik jarraitzen du: “Euskadi nazio mailan ordezkatzeko ‘bonbazo’ bat izan da guretzat”.

“Honek ikusgarritasuna ematen dizu, tranpolin bat da, baina gero mailari eutsi behar zaio”
Luis Viana, Holy Burger

egitea, eta bultzada honek ametsak errazten dizkizu”, dio Xabik. Haien buruan mota guztietako ideiak dabilta: beste hiri batzuetan irekitzea, soilik take away zerbitzuko lokalak, arropa lerro bat sortzea edota, harrigarria bada ere, gaileta denda bat martxan jartzea. Guztia Holy markaren aterkipean. “Inork egiten ez badu, guk egingo dugu”, diote tinko.

Holyren magia


Oraindik Holy probatu ez duenarentzat, Xabik argi dauka gomendioa: “Holy Shit”, Euskadiko hanburgesarik onena, kartan egongo baita urte osoan zehar. Hala ere, bakoitzak bere kuttunak ditu. Xabik pertsonalki “Will Smith” edo “Lana Rhoades” aukeratuko lituzke.

Luisek, berriz, ikuspuntu bitxia du eguneroko horrenbeste hanburgesa saltzeagatik: “Egun osoan saltzen ari garenez, nekatu egiten naiz, ez ditut lehen bezala gozatzen. Baina jendea aukera bat baino gehiago dastatzeko eskatuko nioke. Begirada bat eman diezaiotela kartari, ez da oso luzea, baina jendea harritu egingo da jartzen diogun maitasunarekin eta produktuaren mailarekin”. Holy Burger ez da jatetxe bat soilik; Irunen sortutako iraultza gastronomiko txiki bat da, erakusten duena, prestakuntzarekin, laguntasunarekin eta ausardiarekin, munduko txapelketa baten gailurrera irits daitekeela Bidasoko bazter honetatik.

Amets berriak

Arrakastak ez ditu bi gazte hauek zorabiatu. Argi dute oinak lurrean izan behar dituztela. “Honek ikusgarritasuna ematen dizu, tranpolin bat da, baina gero mailari eutsi behar zaio”, ohartarazi du Luisek. Haien Irunekiko konpromisoa erabatekoa da. Badakite hiri “iragaitzazkoa” edo “pasaerakoa” dela, turismo gutxikoa, eta ekintzaile gazteek bidea ez dela erraza: “Ez digute erraz jartzen gazteoi ekiteko, baina horixe da gure konpromisoa: beti berrikuntza bat ekartzea, zerbait desberdina egitea”.

Etorkizunera begira, Holy marka hazten ikusten dute. “Proiektuak baditugu. Guk beti amestu dugu gauza berriak



IKUS-ENTZUNEZKO PROIEKTUAK - BIDEO GRABAKETA ETA EDIZIOA - MULTIMEDIA

info@bideosare.com | (+34) 680 37 15 66 | www.bideosare.com

BEHOBIA KLUBAK 50 URTE OSPATUKO DITU AUZOAREN IZENA FUTBOLAREKIN, AHALEGINAREKIN ETA HARROTASUNAREKIN LOTUZ

Gaur egun 300 jokalar inguru dituen Behobia Kirol Elkarteak duela 50 urte lotu zuen auzoaren izena futbolarekin, horretarako, klub bezala eratuz. Urteurren berezia izanik, klubak hainbat ekintza antolatu ditu 5 hamarkadetako ibilbidea borobiltzeko. Ángel Varona Behobia Kirol Klubeko presidentek mende Erdiko ibilbidea aztertu du elkarrizketa honetan, taldearen familia izaera eta auzoarekiko lotura estua nabarmenduz.

Pentsatzekoa da 50. urteurrena mugari garrantzitsua izango dela klubarentzat, ezta?

Beno, bai, egia esan, 50 urte ez dira egunero betetzen. Bost hamarkada hauek lanekoak, ahaleginekoak eta lanordu askokoak izan dira. Maila pertsonalean, adibidez, txikitatik nago klubean, benjamin gisa hasi nintzen eta presidente gisa 14 urte daramatzat. Orduz geroztik ikusi dut lan asko egin dela kluba gaur dagoen tokira eramateko. Etapa on eta txar asko igaro ditugu, garaipenak ospatu ditugu baina porrotak ere izan ditugu. Egia esan, hasiera gogorra izan zen, eta orain, bada, urte batzuk daramatzagu, nolabait esatearren, nahiko egoera egonkorrean.

“Agian lehen gauzak errazagoak ziren klubean hainbeste gasturik ez zegoelako”

ziren, udaletxean ezagunak zituzten pertsonen bitartez lortutakoak. Ekimen horri esker, kirol kluba aurrera atera ahal izan zen, nahiz eta talde gisa jada 1900. urtetik existitzen zen. Adibidez, 1949an ateratako argazki bat dago, baina kontua da kluba geroago eratu zela, 1976an, Federazioan izena eman zenean. Hemen auzoko neska-mutilekin hasi ziren, bi edo hiru talderekin, San Miguelen jokatzeko, hainbat txapelketatan jokatzeko eta, egia esan, gauzak ondo atera ziren eta hemen gaude, hemen gaude. Esan dizut, pixkanaka hasi zen eta kluba horrela aurrera ateratzea lortu dugu.

Gaur egun, oraindik ere klubak lotura estu hori mantentzen al du Behobia auzoarekin?

Beno, lehen esan dizudan bezala, dena hasi zenean talde gutxiago zeuden hirian, baita klub gutxiago ere. Hiria hazi egin da, eta egia da kluba bera oso errotuta dagoela auzoan. Hau da, Behobia beti izan da auzo bat eta gu familia bat izan gara. Guk auzoaren izena klubaren izenean daramagu, eta niretzat, adibidez, harro egoteko modukoa da hori.

Urteurrena dela eta, hunkigarria izango da hainbat erakunde eta klubentzat errekonozimenduak jasotzea, ezta?

Ba bai. Begira, lehen ekitaldirako, nolabait esatearren, Real Unióneko Emeryk deitu zigun, eta Alavesen aurkako partidaren ohorezko sarea egitea proposatu zigun Berruetekin batera, berak gurekin hasi eta haiekin ere jokatu baitu. Gainera, 50.

Nola laburbilduko zenituzke klubaren hastapenak?

Ba begira, 76an hasi zen kluba Behobiako plazaratxoan. Gure aldagelak aurrefabrikatuak



urteurrenko kamiseta bat oparitu ziguten, eta, egia esan, oso keinu polita izan zen. Duela hamar egun Realarekin egon ginen, eta antzeko zerbait egin ziguten. Ez genuen ohorezko sakerik egin, jakina, baina atsedendian Aperribay presidentearekin bildu ginen eta kamiseta bat eman ziguten 50. urteurrena zela eta.

Horrelako klub baten barruan boluntarioen lana guztiz ezinbestekoa izango da.

Ba bai, egia esan, hemen dena borondatezkoa da. Asko kostatu zaigu. Elkarrizketaren aurretik esan dizudan bezala, agian lehen gauzak errazagoak ziren klubean hainbeste gasturik ez zegoelako. Baina orain gastu handia dago, eta, beraz, ate asko jo behar dituzu. Azkenean, batzuek atea irekitzen dizute eta beste batzuek ez, ezta? Orduan, lan handia dago, bai kanpoan eta baita klubaren barruan ere, ez da soilik jokalar bat entrenamendu batera etortzea edo partida eguna jokatzeko eta kito, horretarako atzean lan handia dago, entrenamenduak prestatzea bezala, eta hori guztia asko kostatzen da.

50 urteko ibilbidearen ostean, gaur egun, zein egoeratan zaudete?

Ba begira, jokariengandik hasita, ia 300 jokalar ditugu eskola eta talde beteranoen, infantilen, kadeteen eta juvenilen artean. Une honetan maila gorenean Lehenatasuneko Erregionala daukagu. Klubaren osasunari dagokionez, zorionez une honetan ona da. Guk lanean segitzen dugu horrela jarraitu ahal izateko eta hirian erreferente bat izan gaitzen. Badakigu beste klub batzuk ere badaudela, baina, beno, gu gauden tokian gaude, Behobian, zentrotik aparte. Badira beste klub batzuk zentroan egoteko zorte hori dutenak, baina gu beti egon gara Behobian, eta azkenean gurekin etorri nahi duena etorri egiten da. Gu, beti, maila baxuenetatik hasita, gure jokalariekin lan egiten saiatu gara, kanpoko inori deitu beharrik gabe, gurekin hasi ziren neska-mutilei gurekin klubean jarraitzeko aukera emateko. Beti jarraitu ahal izateko. Horretan saiatzen gara behintzat. Beraz, klubaren osasuna oso ona da, oraingoz behintzat.

Zeintzuk dira elkartearen berrogeita hamargarren urteurrena dela eta antolatu dituzuen jarduerak?

Urtean zehar hainbat jardura egingo ditugu. Ba begira, apirilean, Aste Santuan, pentsatu dugu 11n eta 12an eskolen txapelketa bat egitea. Ekainean, Iñaki Berruet txapelketaren

lehen edizioa egingo dugu eta bere izena jarri diogu hemendik, Behobiatik, irten den jokalaria delako, Alavesen edo Real Uniónen aritutakoa. Ideia hau kontatu genion eta pozez zorrotzen onartu zuen txapelketa bere izena jartzeko proposamena. Txapelketa hau azken urteko alebin jokalarientzat izango da, hau da, orain arte zortziko jokalarientzat, baina Futbol 11ko txapelketa bat izango da. Ekimen berritzailea da, eta nola funtzionatzen duen ikusiko dugu. Gabonetan, kadeteen 4. torneo antolatuko dugu. Bertan, izen handiko taldeek hartu ohi dute parte, hala nola Realak, Alavesek, Osasunak eta abarrek. Gainera, martxoaren 25ean, Gipuzkoako Futbol Federazioarekin batera, haur mailako erakustaldi txapelketa bat egingo dugu, federazioko taldeak eta Pirinio Atlantikoetako taldeak parte hartuko dutelarik. Gero, joan den urtera arte Gorri txapelketa zena dago, eta orain zer izen jarri begiratzen ari gara, San Martzial jaien inguruan egiten dena da.

Antolatutako jardueretan mundu guztia parte hartzerantz gonbidatzen duzue, ezta?

Noski. Adibidez, hainbat saioen ondoren, estilo retroko urteurrenaren oroitzapenezko kamiseta bat egitea lortu dugu. Orain, kamiseta horrekin jokatzeko ari den talde bakarra Erreferentea da. Polo batzuk ere egin ditugu 50. urteurrenarekin, eta klubaren ezkutua eguneratu egin dugu. Bestalde, irailaren 12an Ficoban bazkari bat egitea pentsatu dugu izena eman nahi duen orozentzat, jokalar ohiak, gertukoak, senideak, gaur egungo kideak... Festa handi bat egin nahi dugu urteurrena ospatzeko. Orduan, hemendik jendea apuntatzera animatzen dut, Behobian jokatu ez badu ere.

Eta azkenik, Ángel, etorkizunera begira zeintzuk izango lirateke Behobia Kirol Klubaren erronka edo helburuak?

Ba, begira, erronka da hazten jarraitzea eta esentzia hori ez galtzea, klubaren egitura sendotzea, belaunaldi berriak bermatzeko oinarria indartzea eta Behobia klub bezala guztiz finkatzea, hurrengo belaunaldiek Behobia senti dezaten, guk sentitu dugun bezala.

“Behobia klub bezala guztiz finkatzea, hurrengo belaunaldiek Behobia senti dezaten, guk sentitu dugun bezala”




Descansalia

ZURE ATSEDENA, GURE LEHENTASUNA

KONPROMISORIK GABEKO EROSOTASUNA - KONFIANTZAZKO MATERIALAK - ARRETA PERTSONALIZATUA

Luis Mariano kalea 2 | (+34) 666 35 97 08 | info@descansalia.com



“Lana bere osotasunean irundarra da” dira eta gainontzekoak itzulpenak, baina asko dira. Hori ikaragarria da, beraz, hor zure lekutxoak topatzea eta nabarmentzea ez da erraza.

Nolakoa izan da Alberdania Argitaletxearekin liburuakaleratzeko lan egitea?

Ez da Alberdaniarekin batera liburu bat argitaratzen dudan lehen aldia izan. Duela 10-15 urte beste liburu bat argitaratu nuen, garai hartan Inazio Mujika eta Jorge Giménez Bechekin. Gainera, plaza berean gaude, ataritik irten eta alboan baitituz. Beraz, oraingoan noski gertutasun hori egon da eta baita harremana ere. Apustu bat ere izan da, Alberdania aro berri batean dagoelako eta horren aldeko apustua egon da ere nire aldetik. Lana bere osotasunean irundarra da. Ilustratzailea, Lorena Martínez Oronoz, bertakoa da, oso lan fina egin du eta asko inplikatu da hasieratik. Horrek, niri betidanik, baita musikan ere, gustatu zaidan estilo intimista mantentzen lagundu dit.

Liburuaren amaieran, irakurleak zer sententzia izatea nahiko zenuke?


Liburuak kontutxo batzuk, bere neurrian, birplanteatzeko balio badu, jada asko izango litzateke niretzat. Zenbait momentutan umorea ere badago, beraz, irakurlea umore zapore gozo horrekin gelditzea lortuko balitz, primerakoa litzateke. Liburuak irakurleari transmitituko balio tonu lagunkoia, estremismo edo mutur horretatik aldentuz, poztuko nintzateke. Guzti horretatik, zerbait transmitituko balio, neurri batean behintzat, zoragarria litzateke. Liburuak amaitzeak sor dezakeen doluari dagokionez, liburuak ez da desagertuko, irakurlearen liburutegian geratuko da eta gaiez gai kontsultatzeko erraza izango da.

Etorkizunari begira, proiektu berririk duzu jada esku artean?

Ba ez daukat oso garbi. Egia da, gehixeago trebatzen ari naizela literaturan, musikan baino, hori esan ahal dizut. Zer izango den konkretuki? Ez dakit. Haurren literatura asko interesatzen zait eta azken urteetan dexente publikatu dut horren inguruan. Musikari dagokionez, pandemiaren aurretik, 6 disko izan dira, agian gehiegitxo izan da, beraz, distantzia apur bat hartu nahian nabil. Hamarkadak eman ditut musikaren inguruan eta oraintxe bertan gehiago zentratuta nago literaturan.

Liburuko zein pertsonaia aukeratu zenuke berarekin kafe bat partekatzeko?

Bi izan litezke? Izan ere, bat nator puntu horretan Albertorekin, protagonistarekin. Liburuan bi taldetxo daude, euskara irakasleak eta bertan Jon dago. Gero, psikoanalisten taldetxo dago eta bertan Aurora dago. Bi horiekin protagonistak nolabaiteko afinitate berezia du eta bi horiekin geratuko naiz.



Aral Quiromasaje
 MASAJE ON BAT MEREZI DUZU
 www.aralquiromasaje.com
 Larretxipi Kalea 17 | (+34) 643 26 92 76

BADOA
 BIZIKLETA BIZITZA DA
 BIZIKLETA BIDEZKO BANAKETA · ALOKAIKURUA · DENDA
 REPARTO EN BICI · ALQUILER · TIENDA
 +34 943 099 647 Santiago, 49,
 +34 722 653 643 Irun
 badoo@badoo.eus | badoo.eus | @badoo_bb

lassai
 Psikologa
 ZERK KEZKATZEN ZAITU?
 www.lassaipsicologia.com
 San Francisco Kalea 46 (10. lok) | 632 40 21 88

Oier Etxebeste Giménez, Alberdania Argitaletxeko editorea:

“1200 IZENBURUTIK GORA ESKAINI DITU ALBERDANIAK, ETA LIBURUEN % 80 EUSKARAZ ARGITARATU DIRA”

Alberdania argitaletxeak hiru hamarkada daramatza euskal literaturaren unibertsoa aberasten, Irundik mundura kalitatezko lanak eskainiz. Bere ibilbide luzean 1.200 izenburutik gora argitaratu ditu, eta horietatik % 80 euskarazko sorkuntzak izan dira. Gaur egun, aro berri bati ekitearekin batera, logoa eta bildumak berriitu ditu bere esentzia independenteari eusteko. Argitaletxearen gaurko egoeraz eta erronkez hitz egin du Oier Etxebeste Giménez Alberdania argitaletxeko editoreak.

Nola jaio zen Alberdania Irunen eta zein izan da argitaletxearen helburu nagusia sortu zenetik?

Alberdania argitaletxea 1993an jaio zen Inazio Mujika Iraola eta Jorge Giménez Bechen eskutik, adin guztietarako literatura eskainiz, euskaraz nahiz gaztelaniaz. Urte horietan biak parte hartzen ari ziren Lur argitaletxean entziklopedia orokor bat osatu nahian eta argitaletxearen martxa ezagutzearekin batera, poeta, ilustratzaile eta literatura zale batzuekin hasi ziren harremanetan, eta okurritu zitzaizen beste argitaletxe bat sortzea. Egun ziklo berri bat ernatzen ari da Alberdaniaren, Aritz Galarraga, Gorka Bereziartua, eta Miren Mujika editore eta kolaboratzaileekin.

Zer garrantzi du argitaletxea Irun bezalako hiri batean egoteak argitaletxearen eguneroko lanean?

Alberdaniaren egoitza Irunen egotea ez da kasualitatea, sortzaileetako bat, Jorge, Irundarra zen, eta jada Irunen edo Bidasoaldean baziren sortzaile eta idazle ugari. Alberdaniako hasierako katalogoko autore askok jada parte hartu zuten Irunen sortutako literatur aldizkari batean, “Irungo Udaleko Euskara Kontseiluaren aldizkarian” hain zuzen ere, Joxan Elozegi eta Jorge Giménezek sortua, izenez Plazara aldizkaria.

Argitaletxe baten barnean, zeintzuk dira liburu bat argitaratzeko faseak eta zeintzuk dira bertan parte hartzen duten profesionalak?

Liburu bat argitaratzea lan kolektiboa da: editoreak, idazleak, zuzentzaileak, diseinatzaileak, inprentak, banatzaileak eta komunikazio

“Alberdaniaren egoitza Irunen egotea ez da kasualitatea, sortzaileetako bat, Jorge, Irundarra zen”



arduradunek elkarrekin egiten dute lan liburuak irakurleengana iristeko.

“Asmoa euskararen kultura espazioan hutsuneak betetzea da”

Proposamenak aukeratzeko orduan, zer irizpidetan oinarritzen zarete?

Alberdaniak proposamen bat aukeratzeko, hainbat faktore ditu kontuan: testuaren kalitatea, katalogoarekiko koherentzia, irakurle potentziala, eta bideragarritasun ekonomikoa.

Erraza da idazle berrien talentua detektatzea?

Ez, ez da beti erraza idazle talentua detektatzea. Bilatzen duguna da, kalitate literarioa, originaltasuna, estilo propioa eta istorioaren indarra. Talentua detektatzea esperientzia, irakurketa kritikoa eta intuizioa eskatzen duen prozesua da.

Edukiaz gain, liburuaren azala eta estetika zaintzea garrantzitsua izango da, ezta?

Bai, gainera azalak batzuetan, liburuaren gaia edo giroa iradoki dezake. Diseinuaz ari garela, esan beharra dago iazko urte amaieran, Alberdaniaren, logo aldaketarekin bat, bilduma klasikoaren diseinuak berriitu ditugula. Eta sail berri bat sortu dugu, saiakera laburren, non argitaletxearen lehen urteetako diseinuaren erreplika izango duten liburuok, portada bertikalki moztuta, alde bakoitzean kolore banarekin.

Nola jasotzen duzue irakurleen feedbacka edo iritzia argitaratutako lanen inguruan?

Nagusiki argitaletxeak irakurleen iritzia ekitaldien bidez, sare sozialen bidez, liburu-denden bidez, kritikaren bidez eta salmenten datuen bidez jasotzen ditugu.

Zer pisu du euskarazko sorkuntzak argitaletxearen katalogo

osoan?

Formatu guztiak kontuan hartuz, 1.200 izenburutik gora eskaini ditu Alberdaniak, eta liburuen % 80a euskaraz argitaratu dira.

Itzulpengintza alorrean, zer irizpide jarraitzen dituzue munduko literatura euskarara ekarri eta Alberdaniaren zigupean argitaratzeko?

Itzulpenak ez dira soilik merkatu arrakasta baten araberako hautuak, askotan euskararen normalizazioaren ikuspegitik egiten dira. Baina hautua, beti ere, idazle kuttun, edo testu aberasgarriak aukeratu egiten da. Asmoa euskararen kultura espazioan hutsuneak betetzea da.

Zein da gaur egun Alberdaniak duen liburuak arrakastatsuen edo “enbaxadore” nagusia?

Asko dira, baina bat aipatzearren, Kutsidazu bidea, Ixabel, iaz, 100.000 aleak gauditu zituen, eta horren harira, argitalpen berria argitaratu genuen.

Nola lortzen du Irunen dagoen argitaletxe batek bere liburuak Euskal Herriko eta kanpoko liburu-denda guztietara iristea?

Tokiko dendetara eta kanpoko merkatuetara iristearren muina, banaketa eta marketin estrategian dago. Kanpoko liburu denda guztietara ez gara iristen, baina guztiek jasotzen dute gure

“Alberdaniako katalogoko 14 liburuak jaso dute Euskadi Literatura Saria eta beste bik, Literatura Sari Nazionala, eta bai, beti da bulkada liburuarentzat”

liburuen berri, eta dendariak badu aukera liburu bere denda izateko. Online salmentek toki gehiagotara iristen laguntzen dute, edo liburuaren informazioa hedatzen.

Apirilean ospatzen den



ZURE TABERNA IRUNGO ERDIGUNEAN
GOSARIAK - BAZKARIAK - AFARIAK

Zabaltza plaza 8 | (+34) 943 02 06 24



ZURE KONPONBIDE INTEGRALA

GARBI GOXON, ZURE BIZITZA ERRAZAGO EGITEN DUGU
GARBITEGIA - MASKOTA GARBITEGIA - VENDING 24H
EGUNERO IREKITA 8:00ETATIK 22:00ETARA

Puiana Kalea 18 | 621 15 09 79 | www.garbigoxo.com | info@garbigoxo.com



Liburuaren Eguna edo liburu azokak garrantzitsuak dira zuenak bezalako argitaletxeentzat ere?

Liburuaren eguna eta liburu azokak salgai jartzeko, publikoa erakartzeko, marka ezagutarazteko eta harreman profesionalak egiteko une estrategikoak dira argitaletxeentzat. Azoka handietan, adibidez, ehunka liburu saltzen dira egun bakarrean, eta salmenta horiek urteroko diru-sarreraren portzentaje garrantzitsua izan daitezke.

Zuek argitaratutako lan batek sariak eta errekonozimenduak jasotzeak ba al du eraginik argitaletxean?

Alberdaniako katalogoko 14 liburuk jaso dute Euskadi Literatura Saria eta beste bik, Literatura Sari Nazionala, eta bai, beti da bulkada liburuarentzat. Errekonozimenduak, salmentak handitzeaz gain, ikusgarritasuna zabaltzen du, irakurleek eta banatzaileek kalitate eta erreferentziatzko argitaletxe gisa ikusten gaituzte, eta etorkizuneko aukerak sortzen dira. Itzulpenak, kontratuak, kolaborazioak...

Nola egokitu da Alberdania liburu elektronikoaren (e-book) garaira?

Alberdania liburu elektronikoaren garaian egokitu zen, 2010. urte inguruan. Ordutik, produkzio guztia ebook formatuan argitaratzen dugu nazioarteko plataforman nagusietan eskuragarri jarri. Audioliburuak ere eskaintzen ditugu, 28 izenburu hain zuen ere, adin guztietako irakurleak (edo, kasu honetan, entzuleak) kontuan hartuz.

Zein da gaur egun argitaletxe independente batek duen oztoporik handiena sektorean?

Argitaletxe independente batek duen oztoporik handiena merkatuan ikusgarritasuna eta banaketa lortzea da. Liburu sektorea neurri handi batean argitaletxe handien taldeek kontrolatzen dute, eta horiek dendetan, komunikabideetan eta merkatuan presentzia handiagoa dute. Hala ere, gurea bezalako argitaletxe txikiek originaltasuna eta kultura aniztasuna eskaintzen dugu.

Alberdania ezagutzen ez duen bati, zein liburu gomendatuko zenioke zuen etxearen esentzia ulertzeko?

Alberdaniaren esentzia ulertzeko onena da itzulpen garrantzitsu bat eta euskaraz sortutako lan bat irakurtzea. Adibidez, Joxan

“Argitaletxe independente batek duen oztoporik handiena merkatuan ikusgarritasuna eta banaketa lortzea da”

Elosegik euskaratutako Nik kantatu eta dantza egiten du mendiak, edo Lur mortuak, eta euskaraz, Anjel Lertxundik sortutako edozein eleberrri edo saiakera.

“Liburu bat argitaratzea lan kolektiboa da”



ETORRI ETA GOZATU ZURE LAGUN ETA
SENIDEENTZAKO GIRO ATSEGINAZ

KARTA • EGUNEKO MENUA • PLATER BEREZIAK • PAELLAK • PINTXOAK
ERRAZIOAK • OGITARTEKOAK • HANBURGESAK • HAURREN MENUA

Anzaran plaza, 14, Irun, Gipuzkoa | 943 664 897 / 684 802 482 | www.pikarorestobar.com





837 KOMUNIKAZIOA

Zure enpresa, mugarik gabe

ZURE MERKATUA BIDASOAZ HARATAGO ZABALTZEN




(+34) 943 04 20 52
 info@837comunicacion.com
 @837comunicacion
 837comunicacion.com



DENBORA-PASAK

Gurutzegrama: Euskal filmak



Horizontal

- 1- Pablo Agüero zuzendutako film historikoa, sorginen epaiketen ingurukoa.
- 3- Astelehenero emakume batek lore sorta misteriotu bat jasotzen duen euskal filma.
- 5- Altzoko erraldoiaren istorioa kontatzen duen film saritua.
- 6- XIX. mendeko euskal kondaira batean oinarritutako fantasiazko filma.

Bertikal

- 2- Baserri giroko drama, familiaren eta lurrarekin loturaren ingurukoa.
- 4- Mitologia eta historia nahasten dituen fantasiazko euskal film epikoa.

6 Hitz: Zinema-generoak

E	E	R	M	U	S	I	K	A	L	A	F	L	F
R	O	W	B	E	H	T	Q	S	D	Z	V	D	A
R	P	Y	H	S	D	A	Y	N	G	L	Z	U	N
O	B	B	K	K	Y	R	I	I	H	J	N	T	T
M	Q	K	I	C	G	N	A	O	A	W	B	O	A
A	X	P	L	O	U	I	X	M	M	M	I	A	S
N	M	A	S	F	G	X	J	Z	A	U	A	P	I
T	N	R	G	U	Z	R	D	L	M	V	V	B	A
I	M	E	S	L	E	H	A	B	M	Q	G	Y	N
K	G	B	M	I	M	G	I	F	Q	A	K	R	E
O	Y	P	U	R	M	M	C	A	I	P	P	Z	A
A	T	U	N	W	R	I	F	S	R	K	U	U	P
Y	P	G	E	X	P	E	Y	A	V	U	O	N	Q
K	O	M	E	D	I	A	B	B	Q	X	S	A	V

- Drama
- Fantasia
- Biografikoa
- Komedia
- Erromantikoa
- Musikala



BARATZEA

Doinua: Praixku Galtzarreta
Egilea: Josu Laguardia Igiñitz

Baratzea udazkenean, oraindik, emankor.
 Tomate festak jarraitzen du, baina gain behera dator...
 Elikatzen, erleak, etenik gabe, hor...
 Kuia eta zerba biltzera oso gustura nator!

Abenduan bada lana, baina nahiko suabe.
 Zeruan eguzkia ez da gehiago jaun da jabe.
 Babak erein behar dira, ta erleak, bestalde,
 erlauntzetan gordetzera egiten dute alde.

Urtarrilean gurean ezin dut gehiago.
 Hotza eta euria barra-barra, jai girorik ez dago.
 Etxetik irten gabe, aspertuta nago.
 Bitartean baratzean, barazki gutxiago.

Barazki gutxi eta euria, guretat, kondena.
 Kuiarik eta zerbarik ez... betetzeko barrena.
 Aza bat edo beste, neguko azkena...
 Norbaitek uzta biltzeko ba al du itzaropena?

Martxoarekin batera, epeltze garaia.
 Agur otsaileko elurra, barazkien etsaia!
 Konpondu arrastalua, zorroztu igitaia!
 Azkenean, baratzean piztu egin da jaia,

Jaia hasi ondoren, uzta; bazkaltzeko, bapo!
 Eguzki-beroa nolako, jan-edana halako!
 Marrubiak, ilarrak... Den-dena, etxerako!
 Lagunei pixar batzuk... maite ditugulako!

Baratzea egin dezagu! Egin, berehala!
 Tokikoa baino hoberik, topa daiteke ala?
 Bideratu hortara gure eginahala!
 Elikadura sana... Hori bai naturala!

Ta erleekin arestian, a zer buruhauste!
 Lorautsetapenik ez dago, haiek gabe, ez uste!
 Milioika polen-bidai egiten dituzte.
 Baratzeen desagertzetik, salbatu ohi gaituzte!



Erantzunak webgunean:
www.irunero.eus/denborapasak/



KIROLAK

Jon Morillo, txirrindularia:

“HORRELAKO ERRONKA BATEAN INGURUKO JENDEAREN BABESAK ASKO BULTZATZEN ZAITU”

Jon Morillo txirrindulari eta entrenatzaile irundarrak everesting proiektua jarri du martxan. 2026. urtean zehar, hilean behin, eskualdeko mendi bat igoko du Everest mendiak duen desnibel metatua pixkanaka lortzeko. Txirrindulariak elkarrizketa eskaini du erronka nola sortu zen azaldu eta aurretik dituen desfioak nolakoak izango diren aurreratzeko.

Nola bururatu zitzaizun Everesting proiektua martxan jartzea?

Duela bi urte lehiaketak utzi nituen, baina ultradistantzia eta erronkak egiteko asmoarekin. Hasieran bururatu zitzaidan Done Jakue bidea egiten hastea horretarako aukera on bat izan zitekeela. Hori prestatzeko erronka txikiagoekin hasi nintzen. Irundik Burgosera, Espinosara, joan nintzen eta 300 kilometro inguru izan ziren. Gero ere, Formigalera joan eta etorria egin nuen eta baita San Martzial mendiko Everestinga, geroago aipatuko duguna. Horrela jakin nuen txirrinduaz modu honetan disfrutatzea gustatzen zaidala, eta beraz, proiektu hau prestatzea erabaki nuen.

“Horrela jakin nuen txirrinduaz modu honetan disfrutatzea gustatzen zaidala, eta beraz, proiektu hau prestatzea erabaki nuen”

Erronka honek, gozamenaz gain, ba al du beste helburu zehatzik?

Alde batetik, nire buruaren aurka lehiatzea. Bestetik, Everestingak partekatzeo aplikazio bat dagoela jakin

dut eta bertan kirolariak egindako erronkak zabaltzen dituzte. Horrela, bizikleta uzten dudanerako saillkapen horretan ondo kokatuta egotea gustatuko litzaidake. Horregatik, aurrean ahalik eta everesting gehien egiten saiatu nahi dut, eta gauzak horrela, hilabete bakoitzean bat egitea pentsatu dut. Dena den, hor nonbait sorpresatxo bat dago, baina oraindik prestatu gabe dagoenez, ezin dezaket ezer esan.

Joan den urtean San Martzial mendian egindako everestinga izan daiteke proiektuaren abiapuntua?

Done Jakue bidea prestatzeko entrenamendu luze bat egin nahi nuen eta Irungo Txirrindulari Elkartearentzat dirua biltzeko aitzakia ona izan zitekeela pentsatu nuen. Beraz, hori izan zen lehen everestinga eta oso ondo joan zen.

Horren ostean, zein beste erronka egin dituzu 2026. urtearen hasieratik?


Done Jakue bidea egin eta gero opor txiki batzuk hartu nituen, hau da, 2 edo 3 aste egin nituen bizikleta ukitu gabe, aurretik egindakoaz ondo errekueratu eta suspertzeko. Era berean, proiektu hau prestatzen hasi nintzen. Urtarrilean Alacanten Coll de Rates egin nuen, hori izan baitzen lehenengoa. Orain gutxi bigarrena Jaizkibelen egin dut. Igande honetan berriz, martxoaren 8an, Ibardinekoa egingo dut eta eguraldiak nire ahalegina errespetatzea espero dut.

Nola aurreikusten duzu Ibardineko erronka?

Uste dut aurretik egin ditudan antzekoa izango dela. Guztira, 12 edo 13 ordu izango dira. Portua ez da bereziki zaila, lehenengo zatia lasaiagoa baita, baina egia da azken 800 metroak oso gogorrak direla. Beraz, lehenengo zatian erritmo jarraitua eramaten saiatuko gara eta azken zatian, berriz, ahalik eta hobekien eramaten ahalegingo gara.

Nola prestatzen dituzu probak jakinda ordu luzez errepikapen asko egin beharko dituzula?

Fisikoki noski, baina baita mentalki ere. Nik kilometro asko



egiten ditut, nahiz eta ez daukadan prestakuntza zehatzik. Gorputza ohitzeko kilometro eta ordu asko egiten ditut. Uste dut nahiko gogorra naizela eta buruari kontra egiten saiatzen naiz. Orain 25 ditut, lehenengo 12ak egingo ditut eta pixkanaka buruan bueltak kentzen joango naiz, errazagoa izan dadin.

Erronka egin bitartean, nortzuk izaten dituzu ondoan?

Ba nire gurasoak eta familia batez ere. Nire bikoteak eta nire anaiak ere beti egun osoa bertan ematen dute. Goizeko 4:00etan hasiko naiz ahalegingean eta horretarako goizeko 2:00 edo 2:30ean hasi beharko naiz prestatzen. Beraz, haiek denbora guztian nire atzetik ibiliko dira, kotxearekin edo furgonetarekin igotzen, janaria eta ura eman eta arropa jartzen eta kentzen laguntzeko. 8:00etan gora joango dira anoa-postua eta karpa prestatzeko eta bertan emango dute egun guztia, erronka ikustera datorren jendearekin batera.

Jendea errepide bazterretik erronka ikustera eta animatzera etortzen da?

Bai, asko harritu nauen zerbait izan da. Irunen, San Martzial mendiko erronka egin nuenean espero zitekeen, azkenean familia eta lagunak bertakoak direlako. Alacantekoa egin nuenean berriz, jende dezente etorri zen ere, baita jende ezezaguna ere. Jaizkibelen, eguraldi oso txarra egin arren, jende asko etorri zen bizikletaz eta baita motoan, argazkiak eta bideoak ateratzera. Azkenean, horrelako erronka batean inguruko jendearen babesak asko bultzatzen zaitu.

Senideen laguntzaz gain, erronka aurrera eramateko babeslerik duzu?

Lehenengo urtean arropa eta janaria lortzeko babesle bila hasi nintzen eta Crown

“Apirilean everesting hirukoitz bat egiten saiatuko naiz, Erlaitzen”

markak janaria ematen dit, hau da, gelak eta barrak, eta Sirokok arropa ematen dit. Aurten lortu dugu Irun Bike Centerren, Irungo txirrindularitzako denda baten, enbaxadore izatea. Beraz, beraiek materiala eta txirrindua ematen dizkidate. Dena den, horrelako erronka bat antolatzeo, dirua baino gehiago, denbora da kontua. Eskerrak nire gurasoek uneoro laguntzen didaten eta gainontzeko jendea datorrenean ere asko eskertzen da laguntza, baita erronka zabaltzeko argazkiak eta bideoak bidaltzea ere.

Txirrindularitzaz hitz egiterakoan, ohikoena beste txirrindularien aurka lehiatzea izaten da, baina zuretzat erakargarriagoa da zure buruaren aurka lehiatzea?

Azkenean, txirrindularitzaz gozatzeko bi modu ezberdin dira. Nik 10 urte eman ditut txirrindularitzaren munduko ohiko txapelketetan parte hartzen. Oraindik ere mundu horren parte naiz, orain junior taldearen zuzendari bezala, baina, egia esan, ez dut faltan botatzen txapelketen mundu hori. Orain txirrindularitza beste modu batean bizitzen ikasi dut. Nire buruaren aurka aritzen naiz baina nire erritmoan, beraz, exigentzia maila baxuagoa da, ni naiz sentitzen dudana presioaren jabe.

Ibardinekoa egin ostean, zeintzuk izango dira urte bukaera bitarte egingo dituzun beste erronkak?

Hilero erronka hauetako bat egingo dut. Apirilean everesting hirukoitz bat egiten saiatuko naiz, Erlaitzen, hau da, egun batean hasi eta hiru everesting osatzen saiatzea. Ez dakit lo egingo dudana edo ez, baina ia 27.000 desnibel-metro inguru izango direla uste dut, 76 aldiz. Beraz, hori izango da hurrengo erronka eta ea eguraldiak laguntzen didan. Jendea ni animatzeko gerturatzea eskatu nahiko nioke, noski, erronka errazagoa izan dadin.



BIDASOA ESQUALDEKO KIROLAREN TXOKOA

info@kiroletik.eus | (+34) 943 04 20 52 | www.kiroletik.eus





KIROLAK

Alba Rodríguez, borrokalaria:

“BADIRUDI ENTRENATZERAKOAN BETI SUFRITU BEHAR DUZULA ETA BENETAN EZ DA HORRELA”

Alba Rodríguez borrokalariak 2025. urtean Espainiako Txapelketan txapeldun izatea lortu zuen 48 kiloz azpiko grappling modalitatean kimonoarekin. Horrez gain, brontzezko domina irabazi zuen Espainiako Modalitatean 57 kiloz azpiko borroka olinpikoan. Bi garaipen horiei esker, berriki Irundarron Saria jasotzeko kirolari izendatueta bat izan da. Alba Rodríguezek bere kirolean lehiatzea nolakoa den azaldu du.

Zer moduz joan zen 2025eko Espainiako Txapelketa?

Oso ondo. Egia esan, ez nuen espero lortu nuena. Batez ere, kimono gabe lehiatzeko prestatu nintzelako eta azkenean ez nuen horretan irabazi, baizik eta kimonoarekin. Justu kontrakoa gertatzea espero nuen. Gero wrestling, hau da, borroka olinpikoko txapelketara joan nintzen eta 23 urtez azpiko kategorian irabazi ez nuen arren, senior kategorian brontzezko domina bat lortu nuen, beraz, oso pozik ere.

Azkeneko 4 urteetan grapplingean bestelako lorpenak lortu ostean, pozik zaude?

Egia da azken 4 urte hauetan topera ibili naizela lehiatzen. Unibertsitateko ikasketak eguneroko entrenamenduekin uztartu ditut, izan ere, egunero ia entrenamendu bat baino gehiago egin baitut. Orain aldiz, entrenamendu bakarra egiten ari naiz eta entrenatzen ari ez naizenaren sentazioa dut. Gainera, orain lanean hasi naiz eta, beraz, aurten urte ezberdina izaten ari da. Aurten Espainiako Txapelketari ezetz esan diot uste dudalako batzuetan hobe dela garaiz gelditzea, ilusioa eta gogoa

Argazkia: 2025eko Espainiako Grappling Gi Txapelketako podiumean.. ↓



“Aurten Espainiako Txapelketari ezetz esan diot uste dudalako batzuetan hobe dela garaiz gelditzea, ilusioa eta gogoa berreskuratzeko”

berreskuratzeko. Kirolaz beste modu batean disfrutatzen ari naiz, lasaiago, hainbeste sufrimendurik gabe. Baina bai, azken 4 emaitzekin oso pozik nabil.

Urrezko domina gutxien esperotako modalitatean

irabaztea sorpresa handia izango zen.

Bai, 4 urte hauetan gainean presio handia izan dudala uste dut. Espainiako Txapelketan esaterako, grappling eta grappling Gi modalitateetan lehiatu naiz, asteburu bakarrean, larunbatean kimono gabe eta igandean kimonoarekin. Horren ostean, wrestlingean lehiatu nintzen, grapplinga guztiz alde batera utziz. Horrek pisu gehiago galtzea eskatzen zidan, beste kategoriatan bat zelako. Nire kasuan, wrestling egiten nuen **grappling** entrenatzeko. Wrestling zutik hasten eta bukatzen den borroka da eta, beraz, teknika hori erabiltzen nuen gero grappling borroketan aplikatzeko. Hala ere, wrestling txapelketak ere serio hartzen nituen, bere entrenamendu zehatzekin eta guzti, nahiz eta nire arreta guztia grapplingean jarrita izan.

Dominak eskuratzea egindako lanaren ondorioa izaten da.

Bai, baina egia da batzuetan, nahiz eta asko entrenatu emaitzak ez datozela bat egindako lan guztiarekin. Baina, bai, normalean hala izan beharko litzateke, asko entrenatu ostean zure helburuetara iristea. Dena den, batzuetan emaitzak ez dituzu lehen edo bigarren urtean ikusiko, lan asko egin arren. Gertatu izan zait gogor entrenatu eta prestaketa ona eginda ere, lehiaketan gero gaizki aritzea. Espainiako Txapelketa honetan hori bera gertatu zitzaidan, nire helburua grapplingean ondo egitea zen eta azkenean urrezko domina kimonoarekin irabazi nuen. Egia da, behin hori lortuta, hurrengo egunean inolako presiorik gabe joan nintzela, nire entrenatzaileak ez lehiatzea ere proposatu zidan, baina oso polita izan zen.

Txapelketetara begira, presioa kudeatzen jakitea garrantzitsua izango da. Erraza egiten zaizu hori?

Egia esanda, inoiz ez naiz txapelketa batera lasai joaten. Dena den, egia da txapelketa batean egiten duzun lanaren % 90 zure buruan dagoela. Alderdi hori beti landu izan dut nire entrenatzailearekin, hau da, osasun mentalean aditua den



pertsonarik gabe; nire kabuz landutako zerbait izan da. Hala ere, ez dut baztertzen egunen batean hori guztia profesional batekin lantzea. Azkenean, esperientziak asko irakasten dizu, zu zeu geroz eta hobeto ezagutzen zara eta zure burua nola prestatu behar duzun ikasten duzu. Borroka zure buruaren barnean dagoenean da okerrean.

Borrokalari profesional bezala bizitzeko aukera ikusten duzu?

Oso zaila da eta bizitzan momentu bat iristen da non balantza batean jarri behar duzun kirolak zer ematen dizun eta zer kentzen dizun. **Borrokan** kirolari profesionala izatea oso zaila da. Azkenean, Espainiako txapelketan lehiatu arren, nire bizitzak berdin jarraitzen du. Nire senideak harrিতa geratzen dira esaten dieganean irabazteagatik euro bat bera ere ez digutela ematen, nahiz eta ordu asko sartu. Esperientzia bakarrak dira eta ez nuke ezergatik aldatuko bizitako guztia. Noski, laguntza ekonomiko bat izanez gero, nire zalantza guztiak ezabatuko lirakeke.

Berrito ere Irundarron Saria jasotzeko izendatua izan zara. Nola sentiarazi zaitu?

Gala asko gustatu zait hirian zenbat kirolari eta kirol dauden ikusteko aukera ematen duelako, horietako batzuk, nirea bezain ezezagunak. Hirian klub handi eta ezagunak daude, baina zorionez geroz eta gehiago dira. Horregatik, nire izendapenarengatik baino gehiago, galara joatea asko gustatzen zait kirolariak ezagutzeko eta Irunen nolako maila dagoen ikusteko. Gainera, grapplinga

“Nire helburua grapplingean ondo egitea zen eta azkenean urrezko domina kimonoarekin irabazi nuen”

ezagutarazten laguntzeko beste modu bat da eta nabari da geroz eta jende gehiagok ezagutzen duela. Kirol oso polita izateaz gainera, defentsarako ezinbestekoa da eta, beraz, denok probatu beharko genukeela uste dut, helduok zein umeez.

Borroka hitza entzunda jendeari beldurra eman diezaioke, ezta?

Ulerzeko da jendeak aurreiritzi hori izatea, baina probatzea gomendatuko nieke, horrela ikusiko baitute benetan zer den kirol hau. Izan ere, kirolean ez daude jendeak espero dituen kolpeak eta gure klubean gainera errespetu handia dago; beraz, inork ez dizu minik emango. Kirol honetan bakoitzak bere gorputzarekin eta gaitasunekin egiten du jokoa. Altuagoa den batek bere tamaina erabili dezake eta txikiagoa denak, aldiz, bere abilezia. Zure adinekoak diren mutilen edo zu baino helduagoen aurka lehiatu zaitezkeela ikasiko duzu, azkenean, teknika kontua da.

2026rako zeintzuk izango dira zure helburuak kirol arloan?

Nire helburua hurrengo urtean, 2027an, Espainiako Txapelketara bueltatzea izango da. Baina orain batez ere nire helburua entrenamenduetan zentratzea eta horretaz gozatzea da, eguneroko lanean hobekuntza nabaritzuz, txapelketetan hainbeste zentratu ordez. Izan ere, txapelketak prestatzeko entrenamenduak oso ezberdinak dira, horretarako, sufritu behar duzulako eta batzuetan ez duzu hori nahi. Badirudi entrenatzeko beti sufritu behar duzula eta benetan ez da horrela. Orain, ez dudanez sufritzen, entrenatzen ari ez naizenaren sentazioa dut eta horrek batzuetan barne borroka bat sortzen didan arren, pozik nago.



C.D. SAN MARCIAL - 2023 - 2026 BABESLETZA

TALDEAREN FUTBOL EGOKITUAREN ETA OINARRIZKO FUTBOLAREN PROIEKUAN KOLABORATU ENPRESA BAT BADUZU ETA KLUBAREN FAMILIAKO KIDE IZAN NAHI BADUZU, ZURE ZAIN GAUDE!

#GOAZENSANMARCIAL

Ama Birjina Mirarietakoalea Kalea 7, Irún | 943 96 99 12 | patrocinios@cdsanmarcialirun.com



BETI GAZTE

MAKASI TRAVELEK MUNDUA EZAGUTZEKO MODU ARDURATSU ETA ABENTURAZALEA PROPOSATZEN DU

Jon Pombar eta Patrick Laqueche irundarrek turismo konbentzionaletik ihes egiten duen proiektua jarri dute martxan. Talde txikiak, jasangarritasuna, kirola eta tokiko komunitateekiko errespetua dira Bidasoaldean sortutako proiektu berri honen zutabe nagusiak, turismo eredu jasangarriago baten aldeko apustuan.

Gaur egungo mundu globalizatuan, bidaiatzea inoiz baino errazagoa bihurtu da. Hala ere, erraztasun horrek sarritan masifikazioa, ingurumenaren degradazioa eta tokiko kulturen desitxurazioa dakar. Testuinguru horretan, Irunen bi gaztek, Jon Pombarrek eta Patrick Laquechek, kontrako norabidean bidaiatzea erabaki dute. Haien helburua ez da jendea leku batetik bestera eramatea soilik; bidaiatzeko modua eraldatzea dute helburu. Horrela jaio da Makasi Travel, turismoa ulertzeko modu etiko, aktibo eta sakonago bat proposatzen duen proiektua.



Jonek eta Patrickek duela hamar urte pasatxo ezagutu zuten elkar, irundarrak izaki, eta laster konturatu ziren bidaietarako grina berbera zutelak. Pasio horrek Madrilera eramane zituen biak, Turismo ikasketak egitera. Gradua amaitutakoan, Jonek Madrilen jarraitu zuen lanean sektoreko enpresetan, eta Patrick Irunera itzuli zen. Hala ere, distantziak ez zuten elkarren arteko harremana eten, ezta zerbait ezberdina sortzeko gogoia ere. Ideia Patrickek bota zuen egun batean WhatsApp bidez: “Zerbait pentsatu dut”. Bideo dei bat nahikoa izan zen Jonek proiektuan buru-belarri sartzea erabakitzeko. Biek ala biek bidaiari fanatikotzat dute beren burua, baina profesional gisa, sentitzen zuten gizarteari zerbait gehiago eman behar ziotela, sektorea hobetzeko asmoz.

Ekintzaile izatea, ordea, ez da bide samurra. Jonen hitzetan, “inork ez daki ezer hasieran, igerileku hutsera salto egitea bezalakoa da”. Prestakuntza prozesu luze bati ekin zioten, aholkularitza ikastaroak kontratatuz eta Interneten informazioa bilatuz. Oztoporik handienak, aitortzen dutenez, alderdi legalak izan dira. Bidaiak kudeatzea ez da soilik hegazkin txartelak erostea; araudi zorrotzak bete behar dira, eta dena behar bezala edukitzea neketsua izan da. Prozesu honetan, Irunen jasotako babesa funtsezkoa izan dela nabarmendu dute, batez ere Bidasoa Bizirik erakundearen bidez jaso dutena, ekintzailetzarako laguntzak eta aholkularitza eskaini baitizkiete.

Makasi: Esker ona eta barne-indarra

“Makasi” hitzak jatorri eta esanahi bikoitza du, biak ala biak agentziaren filosofiarekin bat datozenak. Alde batetik,

“Makasiren helburua da turista herrialdera moldatzea, eta ez herrialdea turistara”

Patrick Laqueche, Makasi Traveleko koordinatzailea

Indonesiako Bahasa hizkuntzan eskerrak emateko hitza da. Izan ere, haien lehen bidaiak profesionala Malaysiara eta Sumatrara izan zen, eta munduari jasotako guztia eskertzeko modu bat dela



↑ Iturria: Makasi Travel

diote. Bestetik, Kongoko tribu baten hizkuntzan, “makasi” hitzak indarra esan nahi du. Esanahi bikoitz horrek —esker ona eta indarra— laburbiltzen du proiektuaren izaera: errespetuzko begirada munduaren aurrean, baina baita abenturari ekiteko beharrezko indarra eta kemenaren ere.

Makasi Travelen ezaugarri nagusietako bat talde handietatik aldentzea da. Patrickek urteak eman ditu multinazionalekin eta agentzia handiekin lanean, eta argi ikusi du eredu agortuta dagoela. “60 pertsonako taldeetan bidaiatzea, autobus bete batekin herri txiki batera iristea eta denak batera jaistea erasokorra da”, azaldu du. Horregatik, Makasik 6 eta 13 pertsona arteko talde txikien aldeko apustu sendoa egiten du. Tamaina horrek malgutasuna ematen du, eta, garrantzitsuena, tokiko biztanleengan eragin negatiborik ez izatea ahalbidetzen du. Patrickek dioenez, bidaiak masibo askotan ikusten dena “antzerki hutsa” da, turistentzat prestatutako dekoratu bat. “Makasiren helburua da turista herrialdera moldatzea, eta ez herrialdea turistara”, adierazi du Patrick Laquechek. Makasi Traveleko aldebiko harremana sortzea bilatzen du, ekarpenak bi aldeetan eginez.

Jonen ustez, turismo masiboa da gaur egungo arazo askoren jatorria. “Jendea gero eta gutxiago motibatzen du bidaiatzeak, leku jakin batzuetan ilara amaigabeak daudelako eta dena garestitzen delako. Azkenean, ‘hankadun diru-zorro’ bat bezala sentitzen zara”. Makasik planetaren banaketa zuzenagoa eta orekatuagoa proposatzen du, oraindik ustiari gabe dauden txokoak bilatuz, baina beti modu jasangarrian.

Eskaintza berezia

Gaur egun, Makasiren eskaintza Malaysia eta Sumatrara antolatutako bidaiak dira. 15 egunetan zehar, bidaiariek kontraste handiko esperientzia bizi dezakete: oihan sakonenean sartu, orangutanak ikusi, marrazo eta dortoken artean igeri egin, eta metropoli modernoan distira ezagutu, Kuala Lumpur, adibidez. “Konturatu ginen inork ez duen bidaiak-pakete bat dela”, dio Pombarrek, daukaten esperientziari eta kontaktu

pertsonalei esker lortutako ibilbide eksklusiboa dela azpimarratuz.

Gainera, Makasi Traveleki bi elementu bereizgarri gehitu dizkie bere bidaiari. Batetik, Jon edo Patrick taldearekin doaz

24 orduz. Ez dira “gidariak”, horretarako tokiko profesionalak baitituzte, hango historia eta ohiturak inork baino hobeto ezagutzen dituztenak. Koordinatzaileak segurtasuna ematen du, logistika kudeatzen du eta edozein arazoren aurrean irtenbideak ematen ditu. Bestetik, koordinatzaileek argitu dute Makasi bidaiak “ez dira kirol bidaiak, baina bai bidaiak aktiboak”. Horregatik, jende abenturazalea eta kirol pixka bat gustuko duena bilatzen dute, oihanean ibilaldi luzeak, sumendiak igotzea edo raftinga egitea ohikoak baitira. Berrikuntza gisa, goizero entrenatzeko aukera eskaintzen diete bidaiariei, eguneko jardueri fisikoki hobeto aurre egiteko.

Elkartasuna eta etorkizuneko erronkak

Makasi ez da soilik bidaiak enpresa bat; gizarte konpromisoa ere badu. Bidaiari bakoitzaren diruaren zati bat helmugako eskola lokalei laguntzeko erabiltzen dute, dela eskola materiala erositzen edo azpiegitura txikiak hobetuz. Horrela, turismoak eragin positibo zuzena du bisitatutako komunitateetan.

Etorkizunari begira, irundarrek oinak lurrun dituzte, baina amets egiteari utzi gabe. Datozen urteetan helmuga berriak eskaini nahi dituzte, hala nola Senegal, Oman edo beste herrialde batzuk, baina beti filosofia berari eutsiz. “Lauzpabost urtetan irteera gehiago antolatu nahiko genituzke eta koordinatzaile gehiago izan”, dio Patrick Laquechek. Bukatzeko, Makasik bidaiak bat egitea baino gehiago eskaintzen du: mundua begirunez, indarrez eta zentzuarekin ezagutzeko aukera bat. Jonen hitzetan, “posible da turismo jasangarriagoa eta onuragarriagoa izatea bidaiariarentzat zein helmugarentzat”.



ZERBITZU ELEKTRIKO GUZTIAK ESKURA IZANGO DITUZU

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK - NEURRIRA EGINDAKO ARGIEI AZTERKETA - DOMOTIKA ETA AUTOMATISMOAK
BIDEO ZAINTZAK ETA ALARMAK - AHOTSA ETA DATUAK - PROIEKTUAK ETA LEGEZTATZEA - MANTENTZE LANAK

info@mrelectricsystems.com | (+34) 669 30 23 12



CBA Kultur Gunea
 943 50 54 44
 igazte@irun.org
 607 77 11 73
 www.irun.org/igazte

ORERETAKO GAZTELEKUEKIN TOPAKETA!



Oreretako gaztelekuekin batera arratsalde berezi bat prestatu dugu, kirola, estrategia, janaria eta festa uztartuz!

Noiz? Apirilaren 9an

Non? Niessen balio anitzeko gimnasioan

Zer izango da bertan?

Saskibaloitxapelketa – erakutsi zure trebetasunak kantxan!

Xake txapelketa – jarri martxan burua eta estrategiak!

Merendola – indarrak berritzeko guztientzat.

Musika festa – arratsaldea giro ederrean amaitzeko!

Animatu eta etorri lagunekin! Giro aparta, lehiaketa dibertigarriak eta sorpresa gehiago zain izango dituzu.

Ez galdu aukera hau Oreretako gaztelekuekin batera egun ahaztezina bizitzeko!

Izena emateko ARTIA edo MARTINDOZENEA
Gaztelekuan, telefonoz edo emailaz.

GAU IRTEERA: ARRITXULO



Animatu **apirilaren 10etik 11ra** egingo dugun **gazte irteerara!** Lagunartean **asteburu dibertigarri eta abenturaz bete**a bizitzeko aukera izango dugu.

Donostiara joango gara eta bertan **Lasertag** jolasean arituko gara, taldean estrategia eta adrenalina pixka batekin primeran pasatzeko.

Ondoren, **arbolismoan eta tirolinetan ibiliko** gara, zuhaitzen artean abentura biziz eta ausardia probatuz.

Gau Arritxuloko aterpetxean pasatuko dugu, elkarrekin afaldu, hitz egin eta giro ederrean momentu politik partekatuz. Hurrengo goizean, **gosaldu eta gero mendi txango polit bat** egingo dugu.

Animatu eta etorri gurekin! Abentura, barre eta lagunarteko momentu ahaztezinak ziurtatuta daude.

Baimen orria, Osakidetzako txartelaren fotokopia eta ordainketaren justifikagiria Martindozenea Gaztelekuan bertan entregatuz edo **whatsappera** (690706471), Instagramera (@gazteleku_martindozenea) edo **korreora** (gazteleku@irun.org) mezu bat bidaliz eman dezakezu izena. **Artia Gaztelekuan** izena emanez gero, Gaztelekuan **bertan edo whatsappera** (681 946 798), **Instagramera** (@gazteleku_artia) edo **korreora** (gazteleku_artia@irun.org) mezu bat bidaliz egin dezakezu. **Plaza mugatuak**.
Prezioa: 20,35€.

ARAMBURU

ZURE LEIHO-FABRIKATZAILEA IRUNEN - 30 URTE BAINO GEHIAGOKO ESPERIENTZIA DUGU SEKTOREAN.
LEIHO, ATE, BARANDA, PERTSIANA ETA TOLDOAK INSTALATZAILE ONENEN BERMEAREKIN

Gabiria Kalea 42, Irun | (+34) 943 62 22 57 | info@ventanasaramburu.com | www.ventanasaramburu.com



KULTURA

MODA JASANGARRIA



Bokashik **ehungintza estanzazioko tailerra** emango du, bigarren eskuko ehunak eta oihalkiak erabiliz, zigiluekin estanzatzeko aukera emango du kardatzeko teknikaren bitartez.

Eguna: Apirilaren 18an, larunbatean.

Non: Ekoetxea Txingudin.

Ordua: 11:00etatik 14:00etara.

Izen-ematea: Ekoetxea.eus webgunean.

GELTOKI: ZUHAITZ GURRUTXAGA



Futbolari profesional ohia, **botak zintzilikatu zituenetik musikan, antzerkian, telebistan eta bakarrikzketetan aritu da**, eta, azkenik, Txapeldunorde argitaratu du.

Eguna: Apirilaren 23an, ostegunean.

Non: CBA Kultura eta Sorkuntza zentroan.

Ordua: 20:00etan.

Sarrera: Doan, [gonbidapenarekin](#).

DOKUIRUN “ERREPLIKA”



1979an Zikuñagako Ama Birjina desagertu egin zen eta bertako biztanleak euren irudi ikonikorik gabe geratu ziren. **Hutsune bat horma hobian. Hutsune kolektibo bat.**

Eguna: Apirilaren 17an, ostiralean.

Non: CBA Kultura eta Sorkuntza Zentroa.

Ordua: 19:00etan.

Sarrera: 5,65 euro.

ANTZERKIA “BI BASO BAT UR”



Metroko adroak **dantzalekuaren erdian ezin mugiturik dauden lau pertsonen istorioa kontatuko du**; tratu txarren osteko alaitasunaz mintzatuz, sakontasunez eta errespetuz.

Eguna: Apirilaren 24an, ostiralean.

Lekua: CBA Kultura eta Sorkuntza zentroa.

Ordua: 20:00etan.

Sarrerak: Orokorra 10,25 euro eta hobaridunentzat 7,20 euro.



PAPERDENDA - KOPIADENDA - ESKULAN TAILERRA

Luis Mariano kalea 12 | (+34) 943 63 93 01 | irun@folder.es | www.folder.es

Descansalia

Ametsak sortzen diren tokia

Aurkitu kalitatearen, diseinuaren eta
prezioaren konbinaziorik onena duten
koltxoiak, somierrak eta sofak



@descansaliairun

descansalia.com

@descansalia.irn

Luis Mariano Kalea, 2

666 35 97 08

info@descansalia.com

Al - Or 10:00 - 13:30

16:30 - 20:00

Lr 10:00 - 13:30